

## PRENTSA OHARRA

Nota de prensa

---

# BEAT EROAK: Rap tailerrak eta herri arteko lehia gazteentzat Buruntzaldean

- *Rap tailerrak 11–16 urteko gazteentzat*
- *Herri guztietan egingo den proiektu parte-hartzailea*
- *Saria: bideoklip profesionala*

Buruntzaldean martxan jarri da **BEAT EROAK**, 11 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako **rap tailerren eta herri arteko lehiaketaren** proiektua. Otsailetik martxora bitartean, **Buruntzaldeko herri guztietan egingo diren tailerren bidez**, gazteek raparen bidez sortzeko, adierazteko eta lehiatzeko aukera izango dute.

Proiektuaren aurkezpena gaur egin da prentsaurreko batean, eta bertan parte hartu dute, besteak beste, **Agustin Valdivia** (Lasarte-Oriako alkatea), **Estitxu Alkorta** (Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuko arduraduna); **Izar Agirretxe** (Usurbilgo Gaztelekuko koordinatzailea), **Gartxot Unibaso** (Andoaingo Gazte Lokaleko hezitzailea) eta **Telmo Trenor** (BEAT EROAK proiektuko rap tailerretako irakaslea).

BEAT EROAK proiektua **bi fasetan** antolatuta dago. Otsailean, parte-hartzaileek hitzak, errimak eta mezua landuko dituzte; martxoan, berriz, rap kantua sortu eta **herri arteko lehiaketan** parte hartuko dute. Herri bakoitzak bere abestia sortuko du, eta amaieran, entzuleen bozkaren eta epaimahaiaren sariaren bidez, abesti irabazlea zein den erabakiko da.

Lehiaketako saria **bideoklip profesionala grabatzea** izango da.

Proiektua ez dago rap egiten dakiten gazteentzat bakarrik pentsatua. **Ez da aurretiko esperientziarik behar**, parte hartzeko gogoia besterik ez. Helburua da gazteei **ahotsa ematea**, bakoitzak bere hitzekin eta bere estiloan adierazteko aukera izan dezan.

BEAT EROAK **Buruntzaldeko herri guztietan** garatuko da, eta **izen-ematea zabalik dago jada**.

**Info guztia, egutegia eta izen-ematea:** <https://euskara.buruntzaldea.eus/beat-eroak/>

## PRENTSA OHARRA

Nota de prensa

---

# BEAT EROAK: talleres de rap y competición intermunicipal para jóvenes en Buruntzaldea

- *Talleres de rap para jóvenes de 11 a 16 años*
- *Proyecto participativo que se desarrollará en todos los municipios*
- *Premio: grabación de un videoclip profesional*

En Buruntzaldea se ha puesto en marcha **BEAT EROAK**, un proyecto de **talleres de rap y una competición intermunicipal dirigido a jóvenes de entre 11 y 16 años**. Entre los meses de febrero y marzo, a través de talleres que se celebrarán en todos los municipios de la comarca, los y las jóvenes tendrán la oportunidad de crear, expresarse y competir a través del rap.

La presentación del proyecto ha tenido lugar hoy en una rueda de prensa en la que han participado, entre otros, **Agustín Valdivia** (alcalde de Lasarte-Oria), **Estitxu Alkorta** (responsable del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Lasarte-Oria), **Izar Agirretxe** (coordinadora del Gazteleku de Usurbil), **Gartxot Unibaso** (educador del Gazte Lokala de Andoain) y **Telmo Trenor** (profesor de los talleres de rap del proyecto BEAT EROAK).

El proyecto BEAT EROAK se estructura en **dos fases**. En febrero, las personas participantes trabajarán las palabras, las rimas y el mensaje; en marzo, crearán una canción de rap y participarán en la **competición entre municipios**. Cada localidad elaborará su propia canción y, al final, mediante la votación del público y el fallo del jurado, se decidirá cuál es la canción ganadora.

El premio del concurso será **la grabación de un videoclip profesional**.

El proyecto no está pensado únicamente para jóvenes que ya hacen rap. **No es necesaria experiencia previa**, solo ganas de participar. El objetivo es **dar voz a la juventud** y ofrecerles la oportunidad de expresarse con sus propias palabras y su propio estilo.

BEAT EROAK se desarrollará **en todos los municipios de Buruntzaldea** y el plazo de inscripción ya está abierto.

Toda la información, el calendario y la inscripción están disponibles en:

<https://euskara.buruntzaldea.eus/beat-eroak/>